



Bilatu

Menu

Karmelo Etxegarai ikastolako Zutarri guraso elkarteari dirulaguntza izenduna

AZPEITIKO UDALA

Emandako laguntzaren publizitatea

Ebazpena: Alkatetzak 2024/09/06an emandako dekretua.**Onuraduna:** Karmelo Etxegarai Ikastolako "Zutarri" Guraso Elkartea.**Helburua:** Gaur egun eskaintzen diren eskola-ordutegietatik kanpoko zerbitzuak diruz laguntzeko, gurasoen lan-bizitza eta seme-alaben eskolaratzea bateragarri egiteko helburuarekin.

Helburu Orokorrak:

1. Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolako ikasleen gurasoek eta tutoreek ikastetxearen jardunean eta kudeaketan erabateko parte-hartzea izateko duten eskubidea sustatzea eta begiratzea, Euskal Eskola Publikoaren legeak eta indarrean diren gainerako xedapenak diotenaren arabera.
2. Guraso eta tutoreei beren seme-alaben eta ardurapekoen heziketarekin zerikusia duten gaietan laguntza, aholku ematea eta beren jarduetan suspergarri izatea.
3. Ikastetxearen heziketa jardueretan parte hartzea.
4. Eskola orduz kanpoko jarduerak eta eskola jardueren osagarri direnak antolatzea, adibidez bidaia kulturalak, kirol txapelketak, ekintza soziokulturalak, etb.
5. Hitzaldiak, formazio ikastaroak, guraso eskola etb. antolatzea guraso eta tutoreen parte hartzeari buruz.

Zenbatekoa : 25.000,00€**Partida:** 1.1000.481.912.00.01.2024 Transferentzi arruntak Hezkuntza

Horrez gain, dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearen 13. artikulua kontuan izanik Zutarri guraso elkarteak dirulaguntza baten onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

[Gora](#)

2017 - Azpeitiko Udala.

ElkarMediak garaturiko webgunea



